

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2024-2025 denboraldia
(2024ko irailaren 30etik 2025ko irailaren 28ra)

39. astea (2025eko irailaren 22tik 28ra)

*****DENBORALDIKO AZKEN TXOSTENA*****

Gripe-birusaren eta ABSren zirkulazioa epidemia arteko balioetan mantentzen da, baina bi kasuetan goranzko joera bat igartzen da. COVID-19 kasuen kopurua behera egiten hasi da.

- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 308,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (156,6 /100.000 36. astean).
- LMAn, gripe-sindromearen eta bronkiolitisaren tasak epidemia arteko balioetan mantentzen dira, baina azken asteetan goranzko joera hartu dute. COVID-19aren tasak behera egin du Lehen Mailako Arretan.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 32 lagin jagoleen % 90,6 baieztatu da. 5 SARS-CoV-2 eta 4 gripearen birus detektatu dira, baina ez ABSik.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 8,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (7,8/100.000 36. astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 139 SARS-CoV-2, 70 gripe-birus eta ABS bat erregistratu dira.

Zaintza sindromikoa

Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 308,7 kasukoa izan da (156,6/100.000 36. astean). Lurralde historikoka, tasa 230,1/100.000 izan da Araban, 331,1/100.000 Bizkaian eta 309,5/100.000 Gipuzkoan.


Denboraldi honetako gripe-epidemiaren bilakaera joan den denboraldikoaren (2023-24) antzekoa izan da, 2. astean (urtarrilaren hasieran) epidemia-gailurra izan zelarik bi kasuetan, eta 2022-23 denboraldian ez bezalakoa, zeinean gripe-birusaren ezohiko zirkulazioa izan baikenuen, ohiko alditik kanpoko bi tontor epidemiologikorekin.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arreta-sarea. 2024-2025, EAE




Adin-taldearen arabera, tasarik altuena urtebetetik beherakoen taldean erregistratu da, 100.000 biztanleko 4322,4 kasurekin, ondoren 1-4 urte bitarteko taldea kokatzen delarik 1376,7 kasurekin.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE



Lurralde Historikoaren arabera, epidemiaren bilakaera oso antzeko izan da hiru lurraldeetan, baina aipatzekoa da Araban intzidentzia beste bi lurraldeetan baino baxuagoa izan dela denboraldi osoan zehar.


AIAREN intzidentzia-tasa Lurralde Historikoaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE



AIarekin lotutako Prozesu Arin Automugatuaren (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AIaren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 132,0 kasukoa izan da (62,6/100.000 36. astean).

AIaren diagnostikoekin bezala, zaintza honen bidez lortutako AIA tasen profila aurreko denboraldikoaren (2023-24) antzekoa izan da, baina ez ohiko 2022-23 denboraldiarekiko ezberdina. Eta aurreko denboraldietan gertatu den bezala, denboraldiaren azken asteetan prozesu hauek gorantz egiten ari dira.

AIAREkin erlazionaturik irekitako PAAen tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE



¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AIAaren jagoletzaren metodologia](#)


Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek gora egin dute ESI guztietan 36. astearekin alderatuta.

AIaren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoa ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE

ESI	Tasa 39. astea	Tasa 36. astea	Tasen arrazoa (% 95 KT)
Arabako ESI	251,8	124,8	2,12 (1,78-2,28)
Arabar Errioxako ESI	374,1	238,1	1,57 (0,98-2,51)
Barakaldo-Sestaoko ESI	269,5	142,7	1,89 (1,58-2,26)
Barrualde-Galdakaoko ESI	386,4	172,8	2,24 (2,02-2,47)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	332,3	216,8	1,53 (1,40-1,68)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	351,1	173,4	2,03 (1,76-2,33)
Uribeko ESI	247,8	146,5	1,69 (1,48-1,94)
Bidasoako ESI	313,4	136,0	2,30 (1,84-2,88)
Debararrenako ESI	310,2	171,9	1,80 (1,45-2,24)
Debagoienako ESI	197,9	104,4	1,90 (1,42-2,54)
Donostialdeako ESI	299,1	126,8	2,36 (2,12-2,62)
Goierrri-Urola Garaiaiko ESI	359,8	151,8	2,37 (1,96-2,86)
Tolosaldeako ESI	311,1	140,8	2,21 (1,74-2,81)

LMAko gripe-sindromearen tasa 5,5 kasukoa da 100.000 biztanleko (1,8/100.000 36. astean). Bronkiolitisaren tasa (2 urtetik beherakoetan) 100.000 biztanleko 160,3 kasutan kokatu da (21,4/100.000 36. astean) eta COVID-19arenak behera egin du eta 100.000 biztanleko 10,7koa izan da (14,7/100.000 36. astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE



Gripearen epidemiak 2. astean jo zuen goia, eta aurreko denboraldiko antzeko portaera izan du, nahiz eta epidemiak pixka bat gehiago iraun duen. Bronkiolitisaren kasuan, epidemia zenbait astez atzeratu da aurreko denboraldiekin alderatuta, eta, ondorioz, ohikoa baino gehiago gainjarri da gripearenarekin. COVID-19ari dagokionez, bere zirkulazioa azken denboraldietako baxuena izan da, apirila amaieran hasi zen uhin epidemiko bat erregistratu delarik, azken asteetan jaisten hasi dela dirudiena.

Gripe-tasei adin-taldearen arabera begiratzuz gero, Lehen Mailako Arretan diagnostikatutako kasuen artean tasarik altuenak 5 urtetik beherakoetan eman direla ikus daiteke.


Gripe-sindromearen intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 32 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 90,6 baieztatu dira. 5 SARS-CoV-2 eta 4 gripe-birus atzeman dira, baina ez ABSik. Aipatzekoak dira eman diren 16 errinoburis detekzioak.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2024-2025, EAE



Gripe-birusaren positibotasunak goranzko joera du eta % 12,5ean kokatu da (% 0,0 36. astean). ABSren positibotasuna % 0,0an mantentzen, SARS-CoV-2arenak behera egin eta aste honetan % 15,6an kokatu den bitartean (% 35,7 36. astean). Errinobirusak % 50,0ko positibotasuna izan du.

Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2024-2025, EAE

	39. astea		36. astea		2024-2025 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	4	12,5	0	0,0	535	26,0
SARS-CoV-2	5	15,6	5	35,7	105	4,6
ABS	0	0,0	0	0,0	70	3,4
Metaneumobirus	0	0,0	1	7,1	80	3,9
Parainfluenza	4	12,5	0	0,0	98	4,6
Adenobirus	0	0,0	1	7,1	94	4,6
Errinobirus	16	50,0	1	7,1	370	17,0
Urtaroko CoV	1	3,1	0	0,0	101	4,9
Enterobirus	0	0,0	0	0,0	49	2,4

Denboraldi honetan zehar, 2100 lagin aztertu dira Donostiako Unibertsitate Ospitalearen erreferentziarako laborategian, % 65,7ko positibotasun totalarekin. Positibotasun altuenak erregistratu dituzten birusak gripe-birusa eta errinobirusa izan dira, % 26,0 eta % 17,0ko positibotasunekin, hurrenez hurren.

Gripe-birusarentzako positiboak izan diren laginen artean, %37,0 A(H3) izan ziren, % 22,8 A(H1)p eta % 40,2 B motakoak. Laborategi honetan karakterizaturiko laginei dagokionez, anduien % 86,9 6B.1A.5a.2a kladokoak izan ziren eta % 13,1 6B.1A.5a.2a.1 kladokoak. A(H3) andui guztiak, bat izan ezik, C.2a1b.2a.2a.3a.1 kladokoak ziren. Falta zen anduia, 3C.2a1b.2a.2a kladolari zegokion. B influenza andui guztiak Victoria leinukoak eta V1A.3a.2 kladokoak izan ziren.


ABSrako 70 lagin positibo ere detektatu eta aztertu ziren; 28 (% 40) ABS-A eta 42 (% 60) ABS-B. Positiboetatik 44 pediatriako laginetan detektatu ziren eta 26 helduen laginetan. ABS-A eta ABS-B 2024ko urrian hasi ziren zirkulatzen. ABS-B izan zen nagusi denboraldian zehar (% 60), bere gailurra abenduan izanik, eta ABS-Ak ere bere gailurra abenduan izan zuen, baina txikiagoa.

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorritzen direnak. AIAL tasa 8,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (7,8/100.000 36. astean), 8,7/100.000 gizonetan eta 8,9/100.000 emakumeetan.

Lehen mailako arretan AIArekin gertatu den bezala, AIA larriaren epidemiaren bilakaera joan den denboraldikoaren (2023-24) antzekoa izan da, epidemia-gailurra 1. astean izan baitzen (urtarrilaren hasieran) bi kasuetan, baina 2022-23 denboraldiarekiko ezberdina. Hala ere, aipatzeko da epidemia aste batzuk atzeratu dela, agian ABSren zirkulazioaren igoerak izandako atzerapenaren eraginez.




Adin-taldearen arabera, tasarik altuena urtebetetik beherakoen taldean erregistratu da, 51,7 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 64 urtetik gorakoen taldea kokatu delarik 22,1 kasurekin 100.000 biztanleko.

AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 0,8koa izan da 100.000 biztanleko (0,3/100.000 36. astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena tasa 0,0koa 100.000 biztanleko (0,0/100.000 36. astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 1,0 kasukoa 100.000 biztanleko (1,1/100.000 36. astean).


**Tasa por temporada y semana epidemiológica.
Red hospitalaria de Osakidetza. 2024-2025, CAE**



Ospitaleetako gripe-sindromearen epidemiak 2. astean jo du goia, eta aurreko denboraldiko antzeko portaera izan du, baina epidemiak gehiago iraun du. Bronkiolitisaren kasuan, epidemia zenbait astez atzeratu zen aurreko denboraldiarekin alderatuta, eta, COVID-19ari dagokionez, bere zirkulazioa aurreko denboraldietakoa baino baxuagoa izan da, apiril amaieran hasi eta gaur egun mantentzen den uhin bat erregistratuz.

AIA larriagatiko ospitaleratzeak aztertzeaz gain, ospitaleetako larrialdietan egindako bronkiolitisaren diagnostikoen (2 urtetik beherakoetan) datuak ere lortzen dira, kasu guztietan ospitaleratzan ez direnak. Kasu honetan, Lehen Mailako Arretako datuekin gertatzen zen bezala, ikus daiteke epidemia hilabete inguru atzeratu zela eta, gainera, epidemia hori intentsitate txikiagokoa izan zela aurreko denboraldiarekin alderatuta.

**Ospitaleetako larrialdietan 2 urtetik beherakoetan emandako bronkiolitis diagnostikoen tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE**



AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa


Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. Gripe-birusaren positibotasunak gora egin du eta % 10,9an kokatu da (% 7,1 36. astean), eta ABSrena % 0,0an mantentzen da. SARS-CoV-2aren positibotasunak behera egin eta % 13,4an kokatu da (% 19,0 36. astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE

	39. astea		36. astea		2024-2025 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	157	13,4	142	19,0	11047	5,8
Influenza	119	10,9	99	7,1	9537	19,1
ABS	112	0,0	90	0,0	8924	8,5

Denboraldi osoan, Osakidetzako ospitaleen sarean 11.000 proba baino gehiago egin dira SARS-CoV-2rako, 9.000 proba inguru influenzarako eta ABSrako, eta 2.000 proba baino gehiago gainerako arnas birusetarako. Denboraldi honetako laginetan positibotasun handiena gripearen birusek izan dute (% 19,1), ondoren errinobirusak (% 15,4) eta ABSk (% 8,5) kokatu direlarik. SARS-CoV-2aren positibotasuna % 5,8an geratu da.

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 139 SARS-CoV-2, 70 gripe-birus eta ABS bat detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 70 gripe-birusetatik, 39 A motakoak izan dira, 10 A(H3) eta 21 A(H1)pdm09. 2024/40 astetik 9664 detekzio erregistratu dira, 7654 (% 79,2) A motakoak eta 2010 (% 20,8) B motakoak. Azpitipatutako A motako 3879 birusetatik, 2512 (% 64,8) A(H3) eta 1367 (% 35,2) A(H1)pdm09 izan dira.

Gripe-birusaren 9664 detekzioez gain, denboraldi honetan, jakinarazpen-sistema honen bidez, 4392 SARS-CoV-2 detekzio eta 2381 ABS detekzio ere erregistratu dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2024-2025, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2025eko urriak 2

Zaintza Epidemiologikoa Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza